

Leñgual Vaiscol

MALUTAKO ATSUA

Urte asko be asko dirala, Mugarra-barrrenoko txabola txiki baten atso zar bat bizi zan. Atsozku ori, aldi luzian ifora justen ezalako, Mafiari'ko gastiak, eta baita zart-xugako be, izenez bakarrik ezagutzen eben.

Leñgual, Maluta'ko atsua, (au zan bere izenik ezagunena) eparau emakumiak lez, errijan noz gura ibiltan zan; baina, gero, erriko ezalar eta zortizkar guztijen errua berari ezartzen entzuelako, errira juaia osoan galerazo euzoen.

Errijan umetxuen bat gexotuten bazan, Maluta'ko atsuek begirakuna okerez begiakua egin euzola esaten eben; gasteren bat bere arorik onenian litan bazan barriz, Maluta'ko atsuek axetan biaduriko arnasa zikiñak gexotuta il zala, aboa betian esaten eben; eta, beste zortizkar edo atsekaberen bat errijan jasuten zanian be, Maluta'ko atsuek itxuski guretik jauntirik « maldezilua » osoan betetu zala guztijak asarre-bitzetan esaten eben.

Olako osate ta zinkorijalak, Mafiari'ko biztanilak, emakume gaxuaren bikarrak « eruan-ala ari » ta geyako egunero ezartzen euzoen. Ori zala-ta, gure atsozkuak, berrogei ari ta sei sara lupetzagaz egifikio txabola txikitxuan ondo gorderik bdi biarra izan eban, eguerdiko eguzkijaren bero gozoa ta gaberdiko ilargitjaren argi biguna artzen lantxian bein bakarrik urtetan zalarik.

Eta Maluta'ko atsua, larogetaka urtietan era orrotan bixi zalako, errijan, soñaz, zarrak eta artzainak bakarrik ezagutzen eben. Olan da be, uniak eta gastetxuek, beari bildur andija ikaten euzoen. Ume txikiak, okerkorijen bat egifikuan, « Maluta'ko atsuek eroango zaitu » entzuten ebonian, bildurrez dardarka jartzen ziran; gastetxuek eta be, bera aitatutian bijotz — taupada galantak jasaten ebozan.

Neguko gau-luzietan, otzaren igesi sutondoko bero gozoan baten ziran lagunak, Maluta'ko atsuek gaberoro itz egiten eben. Geyenak soñaz ezagutzen ezebelako, nor ete zan eta zer izan ete zinkianez, jakingura andiz itanduten eben.

Bein, agurezku batek iforan, berak, atso ori gastetxotan ezagutu ebala, ta ikatza lakoxe begi baltz ederrakaz bere, arpegijak larrosa bat zirudijala. Ori entzuunik, emakume gaste batek, bere aitak izozenez, « impernuko-burduntzia » baño itxusijagoa zala, begi-ziarka esan eban. Artzain gaste batek ostera, berak atsozku ori, txabola-nurreko landan goruetan ikusten ebala, ta bere buruko ulla, ilargitan zidarrezkoa izaten zala ta eguerdiko eguzkitan barriz, ure-gorri biurtzen zala esan eban, berak barriz erukituta, bein baño sarrifagotan ardi-espe epela be emon euzola ta abar.

« Akere rko artzain gastiak ori esatian, eskaratzeko (sukaldeko) lagunik geyenak lau-orrijen ikaran jarri ziran.

— ¡ Oi, mutil ori Maluta'ko sorginagana urreratzen den!... Olan, buruan uletan-afia zortizkar izango yon!... — neskatilla gaste guztijak (« Ortuoste » kuak ezik) golduta esan eben.

— ¡ Bai, bai, dabilieia!... Mugarra'ko atza jausi orduko damuko yon eta... Olako gaxtoari, jatekorik ez edatekorik be egundo etrako emon biar; gosia eta egarrija jasan dagijala baño... — emakume erkin batek arpegi asartilagaz esan eban.

« Ori entzuunik, « Ortuoste » basetzeko neskatillak, bere begi ederrak artzain gastilagana zuzandubaz abots ikaratziz esan eban.

— Or-egijala, etxak damuko ez!... On-egitaz atze ona yuñok eta...

Orduan, danak ikil-mixidka asita, neskatillari, begirakune itzeliak egin euzoetan.

Ganeko egun baten, Maluta'ko atsua gexotu egin zan,

¡ OI AMATXO... !

¡ Oi, Amatzo... ! Negarrik, ez...
Urrifetik zurr'asmeuten zaituk oyuka.
Aberri maitia larri dago, beraz il nal neuka
Ez negarr egin Amatzo... ¡ Da nire lagia...!
¡ Nigatik ez negarr maitia... !

¡ Alaitu zaituz ! Abes irris...
Zeure ele zarraren, mendi dultzain zofuz
¡ Ez nozu ikusten, mendiz goi-goitzu... ?
¡ Abestu... ! Nik alan ikuzi nal zaituz
¡ Biktzoko, Ama maitetsu... !

¡ Azkatizona... ! Au gogotazuna...
Sorrkaldez goix-argi zidar goxo-biguna
Eguzkiya dator garbi urrez... ¡ Uxatu iluna... !
¡ Oi geure Eskualerri maita ta kutuna !
¡ Etorri da, guretzat zoruna... ?

« ANIEKO ARRANOA ».

eta txarto aton be ; ta gexoareen miñak jasan ezinda, ulu ta negar sarri egiten eban arren, batzuk bildurrez ta beste batzuk gorrotez ziralako, egun batzuetan ifortzuek be ez-entzon lagundu. « Agerre » ko mutilla, orduko bere ardiakaz Anboto'ra juana eizan.

Onetan, atsozkuaren negarrik, « Ortuoste » ko Malpatxuren belarrijetara eldu ziran ; eta neskatilla ona, bere bijotza erukiz urtuta ebalarik, didarra entzun ordukoze, arin-arinka Mugarra-barrenera juan zan. Eta, antze txabola txikijan, emakume zarra il-agifilan aurkitu eban. Orduan, Malpatxuk, ezetarako asti barik, ur-onetsijagaz igortzita abots gozoz esan euzon.

— Andera gaxua, Jaunak donokira eroan zagizala...

Ta emakumiak, bertako, azkenengo arnasia emon biar eban unian, abots-ikaratziz esan euzon.

— Olanxe izan bedi, ba neskatilla. Neure azkenengo arnasia gozotzera etorri ezalako, Jaungoikoak onetsi agijala ba. Errikuzko egintza andi bat egin don... Min (mingain) galstoen guzurak eta nastiak dirala-ta baztertuta ta ezkatuta nazalarik ementxe txabola txiki-kan bixi biarra izan yonat... ¡ Oi zenbat neke ta atsekabe igero dodazan bertan !... Ainbeste ta ainbeste jaran ostian baña. Jaungoiko onak, neure azkenengo une-lakza alingeru baten bijotzagaz gozotu gura izan yon... Aingeru ori, eu az Malpatxu... Egifien-on ori, etxakifak nik zelan ordaindu be... Ta orain, emoteko beste gauzarik etodan ezkero, neure buruko ulla emotia erabagiten yonot. Ule-au, beste uliak lakoa ezion gero... Ule au, ba, gaberdiko ilargitan iminten donanien ule-ari bakoitxetik amar zidar-diru eskuratuko dozan, eguerdiko eguzkitan iminten donanien barriz berrogei ure-diru izango dozan. Eure bijotzeko golmaltasuna Jaungoikoak oso-osoan onetsiko dabelakoan nayagon ; bai... ta entzun ondo... eu ta eure laguna, neure zortzarragaz ainbeste bidar erukitu zan gaste, zeuren bixitzan zorijonekuak izango zario...

Ta ori esanik, emakume gaxuak, Malpatxu'ren mosu gozoa bere arpegijan ebalarik bere azkenengo arnasia gozaro-gozaro emon eban.

Ganeko egun baten, Malpatxuk, emakumiaren esana osoan egin eban ; eta berak esan entzon lez, zidar eta diru askogaz aberastuta ogasun andijaren jabe egin zan.

Andik laster « Ortuoste » basetxera, Iru mutil gaxto-lerden juan ziran, bertako etxagunari bere alabla ematetzat eskatzera. Iru mutillot, ango inguruko etxagunik andijenak eta aberatsenak ziran. Malpatxuk baña, zaldun aberatsari musin-eginda, « Agerre » ko mutilla, bere artalde ederra baño beste ogasunik ezeunon gastea, sernagaltzat autu eban ; eta, egunak juan eta egunak etorri, egun argi ta ederr baten bijak alkarregaz ezkondu ziran ; eta Maluta'ko atsuek iragarri entzon lez, erren bixitza guztijan ondo ta zorijotzu bixi izan ziran.

BUSTINTZA'TARR ERROSE

« Mafiari ».